



Exp 2021SCOU0005

Txosten teknikoa

GAIA: DEBAKO HONDARTZAKO PASEALEKUAREN ONDOAN IZOZKIAK SALTZEKO POSTUETAKO TXOSTEN TEKNIKO-EKONOMIKOA

1. Txostenaren helburua:

Debako hondartzako pasealekuaren ondoan izozkiak saltzeko 3 postuen funtzionamenduen azterketa ekonomikoa egitea.

Hau da, zerbitzu emakida edota beste edozein kontratazio mota izanda, azterketa ekonomikoa bat egitea kanonaren kopurua nondik eratortzen den justifikatzeko.

2. Justifikazioa

Zerbitzuak ustiatzeko eskubide horrek berekin dakar emakidadunari eragiketa arriskua transferitzea, barne direla eskari arriskua, hornidura arriskua edo bi arrisku horiek batera. Eskari arriskutzat hartzen da kontratuaren xede diren zerbitzuen egiazko eskariari dagokiona, eta hornidura arriskutzat, berriz, kontratuaren xede diren zerbitzuen hornidurari dagokiona, bereziki, zerbitzuen prestazioa eskariari ez egokitzeko arriskua.

Hala, kontutan hartzeko hurrengo abantaila kuantitatibo eta kualitatiboak

1. Udalak leku publiko bat ematen du izozkien postu edo etxola horiek jartzeko. Udala ez da zerbitzua ematen duen instalazioen jabea, eta, beraz, ez du langilerik plantillan zerbitzua kudeatzeko.
2. Eragiketa arriskua horrelako zerbitzuak ematen dituen enpresa espezializatu bati transferitzeak aukera ematen dio Udalari jarduera behar diren bermeekin egiten jarraitzeko, eta txikiagotu egiten du eskaeraren aldaketengatik kudeaketa propietatik etor litekeen eragina.
- 3.- Ez da inolako inbertsiorik egin behar, izan ere, izozkien etxola eta hozteko makinak jarri eta kendu ohi dituzte izozkiak hornitzen dituzten enpresek.



3. Erabilera

Hondartzako pasealeku ondoko izozki-postuen eskaria hondartza horrek udan dituen erabiltzaileen kopuruan oinarritzen da. Debabarrenetik eta Debagoienetik hurbilen dagoen hondartza izanik, udalerrri horietako erabiltzaile kopuru handi berera joaten dira, Euskotrenen linearen bidez Debabarrenekoak eta autobus berezien bidez Debagoienekoak.

Gainera, Debabarrenetik datozen askok trenez etortzen diren gazteak dira, hau da, izozki postuetan saltzen diren produktuen eskatzaile handiak.

Era berean, ez da ahaztu behar Debak udatiar ugari, eta gero eta turista eta "jakobino" gehiago hartzen dituela udako hilabeteetan, zeintzuek lehenago edo geroago pasealekutik ibiltzen edo hondartzara joaten direnak. Horrek, azken batean, jende asko biltzen du udako egunetan, batez ere asteburu eta jaiegun eguzkitsuetan. Benetako eskaria eta erabiltzaile bakoitzeko batz besteko gastua nekez aurreikus daitezke hondartzako baldintza meteorologikoen eta erabiltzaile kopuruaren arabera. Zerbitzuaren kalitateak/prezioak eta emandako tratuak ere eragina izango du. Nolanahi ere, uste izatekoa da emakidadunak eskura dituen baliabide guztiak jarriko dituela ahalik eta aginte handiena lortzeko eta ustategia errentagarri bihurtzeko.

Gainera, aipatu behar da aurreko esleipenean 4 postu esleitu zirela, orain ez bezala hiru esleituko direla.

Gogoeta horiek egin ondoren, zerbitzua ematearen aldeko agertokizat jotzen da, eta uztaila eta abuztua dira hondartzaren okupazio-maila altuak.

4. Postuen urteko balio garbia

Lote guztiak izozki postu bati dagozkio. Denak tamaina eta ezaugarri berdinak dituzte. Bereizten dituen gauza bakarra hondartzako pasealekutiko dagoen kokapena da.

1. Sota: postua 1
2. Sota: postua 2
3. Sota: postua 3

2019ko Urtea*

1., 2. edota 3. Sotako **GASTUAK:**

- Izoziak eta bestelakoak hornitzea: 8.400



DEBAKO UDALA

Exp 2021SCOU0005

- Energia elektrikoaren kontsumoa:	677
- Udal kanona:	2.260
- Gizarte segurantzaz:	1.416,6
- Soldatak:	5.000

GUZTIRA gastuak 17.753,6 €

- Saldutakoak : 19.358

GUZTIRA sarrerak: 19.358 €

ETEKINA: 1.604 €

*2019ko datuak hartu dira kontutan, COVID-19 dela eta, 2020ko urteko uda berezia izan baita. Maiatza iraila bitartean jende asko hurbildu zen hondartza eta bere inguruetara hurrengo arrazoiak zirela eta:

- Osasun sailak espazio irekiak ahal zen guztietan erabiltzea gomendatzen zuten.
- Herri, probintzia eta erkidegoen arteko mugikortasuna mugatua izatea.
- Eskualdeko barrualdeko herrien igerilekuak aforo mugatua ezarri izana.
- Debako hondartzaren neurriek aldi berean jende asko egotea ahalbideratzen zuten, inguruko beste hondartza baino gehiago

5. Proposatutako kanon kopurua

Kanonaren kopurua 2000 € izatea, hurrengo kontutan hartuta:

- Postuen balio garbia (kontratastaren mozkina %8,28 izanda) non udal kanonaren batz besteko balioa dagoeneko 2.260 € diren
- 2020. urteko pleguen kanon kopurua (1500 €),
- Hondakinen tasa ordaintzea ezabatu den,
- Etxolak handiagoak izan ahal direnez, parkineko bi plaza okupatuko dute. Horrek aparkaleku bat ez erabiltzea ekarriko du. Udaltzaingoak emandako datuen arabera, plaza bakoitzeko 11 €/eguneko diru-sarrera egon zen iaz. Azken 5 urteetan egun eguzkitsuen batz bestekoa 38 izanik, plazako 418 € gutxiago irabaziko luke Udalak.

6. Ondorioak

Nahiz eta, soilik, urte bateko datu ekonomikoak izan, duela 40 urtetik itsas pasealekuan urteoro izozki postuak daudela aipatu behar da. Eta esleipendun askok lizitazio bakoitzean berriro aurkeztu egiten direla ere.

2019ko datuak aztertuta, onurak nahiko txikiak izan direla aitortu dezakegu. Goian aipatu den bezala, eguraldiak asko baldintzatzen baititu etekinak.

Hondartzan ezarrita dagoen UNE ISO 14001 Ingurumen sistemako instrukzioa eta Aemet-eko datu ofizialen arabera ekainaren 15 eta irailaren 15 bitartean, azken 5 urtetako datu meteorologikoak ikusita, ohiko uda izan zela ikus daiteke :

	Egun EGUZKIITSUAK	LAINOTUTAK	EURITSUAK	guztira
2019	39	50	4	93
2018	40	49	4	93
2017	24	59	11	93
2016	42	41	10	93
2015	45	39	9	93

Baina, 2019ko uda, ez zen hobenetariko izan, udako asteburu gehienetan eguraldi txarra egin baizuen. Uda garaiko 14 asteburuetatik, 9tan, larunbatean zein igandean eguraldi txarra egin zuen, Debara jende gehien etortzen ohi den asteburuetan konkretuki: ekainiko azkena, uztailleko guztiak, eta abuztuko azken biak.

Beraz, Publiko guztiei zuzendutako kudeaketa arduratsuekin eta produktuen ugari-tasunarekin, aurreikusten da hurrengo urteetan diru-sarrerek arazorik gabe jarraituko dutela kostuak estaltzen eta mozkinen arrazoizko marjina bat ere utziko dutela. Nolanahi ere, aurreikusitako kontratistaren mozkina ez dago, inola ere, bermatuta, eta ez du inolako eskakizun eskubiderik sortzen Udalaren aurrean.

Ondorioz, proposatutako kanon kopurua egokia dela aitorten dut, eguraldia aldekoa ez denean ere, zerbitzuaren bideragarritasun ekonomikoa baieztatu daitekeelako,

Bide batez, hurrengo esleipenetara begira, datu ekonomiko gehiago izateko, esleipen-oinarrietan, urte bukaerako txosten ekonomiko bat aurkezteko beharra gehituko da.

Deban, 2021ko martxoaren 3an



Idoia Alvarez
Ingurumen teknikaria

